

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	EHUN-PRODUKTUEN MOZKETA, MIHIZTADURA ETA AKABERAKO OINARRIZKO TEKNIKAK (zeharkakoa)	Iraupena	60
		Espezifikoa	
Kodea	UF1030		
Lanbide-arloa	EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA		
Lanbide-eremua	Ehun- eta larru-jantzigintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ehun- eta larru-jantzi eta -gaien konponketak eta moldaketak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Arropak moldatzea eta pertsonalizatzea	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Arropak moldatzea	Iraupena	60
	Arropak pertsonalizatzea	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator, partzialki, UC1227_1 MOLDAKETAK EGITEA ETA ARROPAK PERTSONALIZATZEA gaitasun-ataleko LB2, LB3, LB6 eta LB7 lanbide-burutzapenekin, ehun-produktuen mozketa, mihiztadura eta akaberako oinarritzko teknikei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Jantzigintza-prozesuaren eragiketarik deskribatzea, eta erlazioatzea produktuaren osagai diren materialekin eta ehun-artikuluak egiteko erabiltzen diren oinarritzko makina eta ekipoekin.

EI1.1 Lan-agindu batek izan beharreko informazioa eta ehun-artikuluaren osagai diren material ezberdinei aplikatu beharreko transformazio-prozesuak erlazioatzea.

EI1.2 Lan-plangintza bat ezartzea, eta identifikatzea eragiketen segida eta egin beharreko ehun-produktuaren mozketa, mihiztadura eta akabera egiteko prozesuetan parte hartzen duten elementuak.

EI1.3 Materiala hautatzea eta kuantifikatzea, egin beharreko ehun-produktuan oinarrituz.

EI1.4 Fabrikazio-prozesuan behar diren makina, osagarri eta erremintak hautatzea eta kuantifikatzea, egin beharreko produktuan oinarrituz.

EI1.5 Oinarritzko makina eta ekipoak doitzea, kontuan hartuz erabili beharreko mozketa-, mihiztadura- eta akabera-teknikak eta materialen eskakizunak, eta erabiltzeko posizioan uztea, ehun-artikuluak egiteko.

A2: Hainbat prozeduraren bidezko mozketa-eragiketarik egitea, ehuna eta materialak egin beharreko ehun-artikuluaren arabera prestatuz eta segurtasun-irizpideak aplikatuz.

EI2.1 Hainbat material prestatu eta mozteko prozesua deskribatzea, desbideratzeak saihesteko erabilitako prozedurak identifikatuz.

EI2.2 Materialaren anomalia edo akatsak detektatzea, eta horiek prozesu eta produktuan dituzten ondorioak balioztatzea eta hartu beharreko neurriak zerrendatzea.

EI2.3 Materiala zabaltzea, prozesurik egokiena jarraituz eta patroiak marrazteko kondizio egokienak berrikusiz: tolesik gabe, lerrokatuta, beharrezko tentsioarekin, hariaren noranzko egokiarekin eta norabide egokiarekin.

EI2.4 Patroiak materialaren gainean marraztea, hainbat prozeduraren bidez, eta lotura-puntuak, oihal-bazterren akaberak eta apaingarri eta hornien kokapenak adieraztea, osteko mihiztatze-lana errazteko.

EI2.5 Mozteko eragiketarik trebetasunez egitea, modu ordenatuan, txukuntasunez, zehaztasunez eta segurtasunez, prozedura eta teknika egokiak aplikatuz.

EI2.6 Egin beharreko artikuluaren osagaien mozketa-eragiketen kalitatea egiaztatzea, modu zorrotz eta eraginkorrean, eta detektatutako anomaliak zuzentzea.

EI2.7 Jantzigintza-prozesu bateko mozketa espezifiko baten kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Emandako informazio teknikoaren arabeko eragiketa-segida ezagutzea.
- Eskuz mozteko makina identifikatzea, eta, hala badagokio, baita behar diren erreminta, lanabes eta osagarriak ere.
- Mozteko elementuen ezaugarriak identifikatzea, eta erabiltzeko moduan daudela egiaztatzea.
- Materialak kokatzea edo zabaltzea, mozketa-eragiketarik egiteko.
- Moztu beharreko materialaren gainean zatiak markatzeko eragiketarik egitea.
- Zatiak profila deformatu gabe mozteko eragiketarik egitea, mozketa-aginduaren argibideei jarraituz, zuloak eta zuloak markatuz, babes-ekipo egokiak erabiliz.

A3: Ehun-artikuluak egiteko aplikatzen diren prestatze- eta mihiztatze-eragiketarik egitea, eskuz eta/edo makinaz, segurtasun-irizpideei jarraituz.

EI3.1 Mihiztatze-sistemak sailkatzea eta deskribatzea, lotura-motaren, baliabideen eta ehun-artikulu ezberdinen osagai diren materialen arabera.

EI3.2 Mihiztatze-prozesuan desbideratzeak saihesteko erabilitako prozedurak identifikatzea.

EI3.3 Produktuak prestatzeko eragiketak egitea, trebetasunez eta autonomiaz: tarteko lisaketa, termofinkatzea eta abar, mihiztatzeko, ezarritako eragiketa-segida betez eta estetika- eta segurtasun-irizpideei jarraikiz.

EI3.4 Mihiztatzeko eragiketak egitea, trebetasunez eta autonomiaz, lotura-mota bakoitzarentzat egokiak diren metodo eta teknikak aplikatuz: oihal-bazter, toles, itxitura, apaingarri eta abarren akabera egitea, ezarritako eragiketa-segida betez eta estetika- eta segurtasun-irizpideei jarraikiz.

EI3.5 Ehun-produktuen mihiztatze-eragiketen kalitatea egiaztatzea, modu zorrotz eta eraginkorrean, eta detektatutako anomaliak zuzentzea.

EI3.6 Jantzigintza-prozesu bateko mihiztadura espezifikoko baten kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Emandako informazio teknikoaren arabera eragiketa-segida ezagutzea.
- Parte hartzen duten makinak identifikatzea, eta, hala badagokio, baita behar diren erreminta, lanabes eta osagarriak ere.
- Mihiztadura egiteko beharrezkoak diren puntada-luzeraren, tentsioaren eta hari-kopuruaren parametroak egiaztatzea.
- Josteko makinaren elementu operatiboak identifikatzea, eta erabiltzeko moduan daudela egiaztatzea.
- Materialak kokatzea (ehun-zatiak, forruak, horniak eta/edo apaingarriak), mihiztatze-eragiketak hasteko.
- Mihiztatze-eragiketak egitea, lotura-mota bakoitzarentzat egokiak diren metodo eta teknikak aplikatuz, lan-aginduen argibideei jarraituz, segurtasun-neurriak betez eta babes-ekipo egokiak erabiliz.

A4: Akabera-eragiketak egitea hainbat ehun-artikulu motatan, aurreikusitako aurkezpen eta kalitatearen arabera, segurtasun-irizpideei jarraikiz.

EI4.1 Hainbat ehun-produktuen akabera-prozesua deskribatzea, aurreikusitako aurkezpen eta kalitatearen arabera, desbideratzeak saihesteko erabilgaitako prozedurak identifikatuz.

EI4.2 Tarteko eta amaierako akabera-eragiketak egitea, trebetasunez eta produktuaren arabera metodoa erabiliz, txukun, gustu onez eta segurtasunez, ohiko prozedura eta tekniken bidez.

EI4.3 Lisatuz, produktuaren akabera eta aurkezpena hobetzea, haren forma eta osakeraren arabera.

EI4.4 Ehun-produktuen akabera-eragiketen kalitatea egiaztatzea, modu zorrotz eta eraginkorrean, eta detektatutako anomaliak zuzentzea.

EI4.5 Jantzigintza-prozesu bateko akabera espezifikoko baten kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkala:

- Emandako informazio teknikoaren arabera eragiketa-segida ezagutzea.
- Parte hartzen duten lisatzeko eta akabera egiteko ekipoak identifikatzea, eta, hala badagokio, baita beharrezkoak diren erremintak, lanabesak eta osagarriak ere.
- Mihiztadura egiteko beharrezkoak diren lisatze-parametroak egiaztatzea.
- Lisatzeko eta akabera egiteko ekipoen elementu operatiboak identifikatzea, eta erabiltzeko moduan daudela egiaztatzea.
- Materialak kokatzea (zati erdilanduak edo produktu amaitua), akabera-eragiketak hasteko.
- Tarteko eta amaierako lisatze-eragiketak egitea, segurtasun- eta estetika-irizpideei jarraikiz, mihiztatze-lanak hobetuz eta erraztuz, babes-ekipo egokiak erabiliz.

Edukiak

1. Jantzigintza-prozesua ezagutzea.

- o Sorkuntza, diseinua eta patroigintza.
 - Modeloen industrializazioa.
 - Ehunen azterketa.
 - Patroigintza, eskalatzea eta markaketen azterketa.
 - Prototipoak egitea.
- o Jantzigintza-prozesuko fabrikazio-faseak.
 - Mozketa.
 - Mihiztatzea.
 - Lisatzea eta akaberak.
- o Metodoen azterketa eta lan-denborak.
- o Fabrikazioaren kontrola.
- o Kalitatearen kontrola.

2. Ehuna eta materialak moztea, ehun-artikuluak egiteko.

- o Hainbat material mozteko teknikak eta prozedurak.
 - Zabaltze-eragiketak.
 - Materialaren gainean patroiak marraztea.
 - Mozte-eragiketak.
- o Moztutako zatien kalitatea egiaztatzea. Anomaliak zuzentzea.
- o Ehuna eta materialak mozteko prozesuaren segurtasun-irizpide eta -baldintzak.

3. Ehun-artikuluak eskuz eta/edo makinaz mihiztatzea.

- o Hainbat material mihiztatzeko teknikak eta prozedurak.
- o Jostura-motak eta haien sailkapena:
 - SS multzoa. Jostura gainezarriak.

- LS multzoa. Jostura gainkargatuak.
 - BS multzoa. Azpiltzeko josturak.
 - FS multzoa. Jostura lauak.
 - OS multzoa. Apaintzeko josturak.
 - EF multzoa. Bazterreko josturak.
 - Mihizatze-eragiketak:
 - Oihal-bazterrak puntada luzez jostea.
 - Zatiak jostura normalen bidez lotzea.
 - Zatiak jostura bikoitz edo frantsesaren bidez lotzea.
 - Tolesak egin eta izurrak hartzea.
 - Azpildurak egitea.
 - Itxiturak, aletxak, lokarri-zuloak eta botoi-zuloak.
 - Bestelako lotura-motak: itsasgarriak, termozigilatzea, termofinkatzea, ultrasoinuak.
 - Zati mihizatuen kalitatea egiaztatzea. Anomaliak zuzentzea.
 - Ehun-produktuak mihizatze prozesuaren segurtasun-irizpide eta -baldintzak.
- 4. Ehun-artikuluen akabera-eragiketak.**
- Hainbat materialen akabera egiteko teknikak eta prozedurak: Tarteko akabera egiteko eragiketak.
 - Zatiak konformatzea.
 - Ertzak eta albainu txikiak lisatzea.
 - Eskuzko lisaburdinarekin josturak zabaltea. Azken akabera egiteko eragiketak.
 - Elementu osagarri eta apaingarriak txertatzea: botoiak, zintak, lokarriak, pasamaneriak, etab.
 - Azken lisaketa.
 - Produktuen kalitatea egiaztatzea. Anomaliak zuzentzea.
 - Produktuak entregatzeko prestatzea.
 - Ehun-artikuluen akabera-prozesuaren segurtasun-irizpide eta -baldintzak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ehun- eta larru-jantzi eta -gaien konponketak eta moldaketak